

Gernika Plazako jolasgunea aukeratu dute atxabaltarrek

Azaroaren 7 eta 8an Arkupen egindako bozketaren ondoren Gernika Plazako Jolasguneko proposamena aukeratzeko prozesua amaitu da. Guztira 607 pertsonak eman dute euren botoa eta gehiengoak 392 botoekin 2. proposamena aukeratu du, hau da, **“MAXI TOM SAYER DORRE AKTIBOA”**. Parte hartze maila altuena **Kurtzeberri Eskolan eta Arizmendin izan dira, orotara 501 umek eman dutelarik botoa. Gernika Plazako lanak abenduan zehar hasiko dira urtarrilean amaitzeko.**